

«Batzuetan, merezi du ideia eroak planteatzea»

berria.eus/paperekoa/1888/032/001/2021-10-12/batzuetan-merezi-du-ideia-eroak-planteatzea.htm

Alex Uriarte Atxikallende



PABLO JAUREGUI / BBVA FUNDAZIOA

Lanak bere fruitua ematen du. Ondo daki hori Mikel Artetxek (Zarautz, Gipuzkoa, 1992). EHUko Gorka Labakaren eta Eneko Agirrerren gidaritzapean egin duen tesiak Espainiako Zientzia eta Informatika batzordearen ikerketa saria irabazi du, gainbegiraterik gabeko itzulpengintza automatikoari egindako ekarpenengatik.

Urteetako ekinaren saria lortu duzu?

Bai. Ikerkuntzan, beti sortzen da nolabaiteko ziurgabetasun bat norbaitek muga bat urratzen duenean. Nik lan ona egin dudala uste dut, eta horren saria jaso dut.

Itzulpen programen aurrean, zer leku dute itzultzaile profesionalak?

Gaur-gaurkoz, itzulpengintza automatikoak aurrerapen handia izan du; badira testuak, gehienak, itzultzaile profesional baten beharra izango dutenak. Baina, etorkizunera begira, esango nuke itzultzaileen beharrizana apalduz joango dela.

Itzulpengintza automatikoaren esparruak sabaia jo duela uste duzu?

Ezekoan nago. Egia da tarte batean berritasunerako izugarritzko erritmoa izan zela, baina oraindik egiteko mordera dago; batez ere, baliabide urriko hizkuntzekin erlazionatuta.

Testu motak eragiten al du?

Bi baldintza daude: batetik, mundu akademikoko itzulpengintza kazetaritza testuetan edo parekoetan oinarritzen dela, eta ez hainbeste, kasurako, genero literarioan; bestetik, itzulpen automatiko ez gainbegiratuaren kasuan, komeni dela testuen bi hizkuntzetako domeinuak ahalik eta antzekoenak izatea. Eredu horretan, ez da beharrezkoa sistemari itzuli behar dituen hizkuntzak zeintzuk diren argitzea, baina lagungarria da bi testuen domeinuak ondo zehaztea, erregistro aldetik.

Zer presentzia du euskarak itzulpengintza automatikoaren arloan?

Hizkuntza prozesamenduan, oro har, euskarak presentzia txukuna du: hiztun kopurua ikusita, ez dago gaizki. Ixa taldeak, halaber, lan garrantzitsua egiten du bide horretan: nire tesia haiekin landu nuen, eta argi dut egundoko lana egiten dutela. Euskararen kasuan, baina, datu publikoen gabezia azpimarratuko nuke: ikerketa akademikoan, erabiltzaileen datuak behar ditugu, gure azterketa lana errealagoa eta zehatzagoa izan dadin. Euskarak badauzka datuok, baina gehienak pribatuak dira. Gai horren inguruan bada lanik egiteko.

Ikerlariak prekaritatea bizi du?

Bai. Ni Londresen bizi naiz, eta hemengo egoera dezente hobea da. Egonkortasunaren bidean, ikerkuntzatik bizi nahi izatea prozesu neketsua da eta, gainera, oso burokratikoa: badirudi norbere etorkizuna ez dagoela guztiz norberaren lanaren menpe, sistema burokratikoaren baldintzapean baizik. Adibidez, Espainiako Estatuaren kasuan, ikerketa ez da inoiz lehentasuna izan: badira laguntzak eta azpiegiturak, baina ez zaie ikerkuntzarekiko optimizazioan lan egitea interesatzen. Kontu tristea da oso.

Adimen artifizialak giza adimena aurreratu du?

Ez dago adimenaren nozio absoluturik. Ordenagailuak munduko xake jokalaririk onenari erraz irabaziko lioke, baina ez litzateke gai izango gizakiontzat sinpleak diren beste ataza batzuk egiteko.

Lortutakoagatik presioa sentitzen duzu?

Ez. Aurrera begira, agian, jendeak itxaropena izango du nigan, baina horrek ez dit axola. Kontua ez da orain, bat-batean, urtero sariak irabazten hasiko naizela.

Zer irabazi duzu bidean?

Bidea bera, eta lanean disfrutatu dudana dena. Alde promozionaletik ere, talde lana bistaratu da; hori egindako sakrifizioaren erakusgarri da.

Eta galdu?

Ikerkuntzaren mundua bera: Euskal Herrian, zaila da egonkortasuna lortzea; egoera oso frustragarria da.

Ikaspenik garrantzitsuena?

Batzuetan, merezi duela ideia eroak planteatzea, eta, lanarekin, horiek lortzea. Ikerketan, segurtasun eremuan geratzeko joera dago, eta gu, aldiz, sormen lan bat egitera ausartu gara. Harro nago horretaz.

Sareko BERRIAzalea:

Irakurri berri duzun edukia eta antzekoak zure interesekoak badira, eskari bat egin nahi dizugu: *Berria* diruz babestea.

Zuk eta zure gisako sareko milaka irakurlek egindako ekarpenarekin, eduki gehiago eta hobeak sortuko ditugu. Eta, zuekin osatutako komunitateari esker, publizitateak eta erakundeen laguntzek bermatzen ez diguten bideragarritasuna lortuko dugu.

Euskarazko kazetaritza libre, ireki eta konprometitua eskaini nahi dizugu egunero; bizi zaren munduaren eta garaiaren berri ematen segitu.

Irizpidea duzulako. Giroan zabiltzalako.

Zuk badakizulako.

Egin BERRIALaguna

Asteko gai hautatuekin osatutako albiste buletina. Astelehenero, ezinbesteko erreportajeak,

Astekaria elkarrizketak, iritzia eta kronikak zure posta elektronikoan.